



## **BERGARAKO UDALEAN AURRETIAZKO JAKINARAZPENEN OBRETARAKO UDAL LIZENTZIA LORTZEKO PROZEDURA LABURTU AZKARRA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA**

OHARRA: Dokumentu hau informazioa emateko helburuarekin eginda dago. Aldizkari ofizialetan argitaratutako testu onartuek bakarrik dute balio legala

**Onartuta:** Udalbatzak 2020/10/26an

**Argitaratuta:** Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2021/01/ 25ean

### **Aldaketak:**

#### **1. aldaketa:**

Onartuta: Udalbatzak 2024/11/25ean

Argitaratuta: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2025/02/19an

# BERGARAKO UDALEAN AURRETIAZKO JAKINARAZPENENKO OBRETARAKO UDAL LIZENTZIA LORTZEKO PROZEDURA LABURTU AZKARRA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

## SARRERA.

Udalaren asmoa da Administrazioako prozesuak erraztea, burokraziak kentzea eta izapideak sinplifikatzea, beti ere indarrean dagoen legedia betetzeko bermearekin.

Udalak komenigarritzat jotzen du proiektu tekniko bat aurkeztea eskatzen ez duten garrantzi txikiko obren zati baten eskaera eta izapidetzea arautzea, dagokion udal-lizentzia ahalik eta modu errazenean lortzeko.

Ekainaren 30eko 2/2006 Legearen —Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoan— 207. artikuluan eta udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko Ordenantzan jasotzen dira udal-lizentzia eskatzera derrigorputa dauden obrak

Gauzak horrela, jarraian zehazten diren artikuluetan jasotzen dira aurretiazko jakinarazpena behar duten obren definizioa eta jarraitu beharreko izapideak.

## 1.- Definizioa.

Aurretiazko komunikazioa behar duten obratzat hartuko dira etxebizitzetan egiten diren eta proiektu teknikoa behar ez duten jarraian zehazten diren etxe barruko obra xumeak:

- Sukaldea berriztu.
- Komuna berriztu.
- Zorua aldatu.
- Barruko arotzeria aldatu.
- Kalefakzioa ezarri edo aldatu.
- Argiteriako instalazioa berriztu.

Bestalde, ez dira aurretiazko jakinarazpenaren mende dauden obratzat hartuko proiektu teknikoa behar dutenak, azaroaren 5eko 38/1999 Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko Legearen 2. artikuluan ezarritakoaren arabera; eta ezta aipatutako proiektu teknikoa behar ez duten arren, artikulua honetan erlazionatuta ez daudenak (leiho-aldaketak, eraikineko elementu komunetako obrak –fatxadak, teilatua, ataria, eskailera... –, lokal eta pabiloi industrialetan egindako obrak, eta abar).

Aurrekoetz gain aurretiazko komunikazioa behar duten obratzat hartuko dira:

- a) Eraikin edo eraikuntzetan eta aparkatzeko pergoletan autokontsumora bideratutako eguzki-energia aprobetxatzeko instalazioak, potentzia-mugarik gabe. Salbu eta kultura-interesekotzat edo katalogatutzat jotako eraikin edo multzoetan egiten direnean, eraikinaren zimenduari edo egiturari eragiten diotenean edo, ingurumen-araudi aplikagarriaren arabera, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin behar zaienean; kasu horietan, beharrezkoa izango da hirigintza-lizentzia.
- b) Eraikinen barruan dauden ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak, kultura-interesekotzat jotako ondasunei edo beste edozein babes-araubideri eragin diezaieketen kasuetan izan ezik; kasu horietan, hirigintza-lizentzia beharko da

Aurreko a) eta b) letretan jasotako aurretiazko jakinarazpenean, gutxienez, honako hauek jaso beharko dira: obren aurrekontu xehatua, egikaritzeko lekuaren planoak eta argazkiak, eta instalazioaren indarra adierazten duen memoria. Gainera, a) idatz-zatiaren kasuan, teknikari eskudunak emandako txosten bat aurkeztu beharko da, instalazioa jarriko den eraikinaren euste-ahalmena egiaztatzen duena, eta, b) idatz-zatiaren kasuan, teknikari eskudunak emandako txosten bat, proiektatutako birkarga-puntuak jasateko instalatutako potentzia nahikoa dela egiaztatzen duena.

## **2.- Izapidea.**

Eskatzaileak Udalak prestatutako eskaera-orria bete beharko du eta Udaleko Erregistro Orokorrean (edo gaitutako baliabideen bidez: telematikoa, posta...) aurkeztu beharko du eskaera, gremio guztien aurrekontuekin batera. Ondoren, Udaleko Kontu-hartzailetzan ordaindu beharko du Ordenantzaren arabera dagozkion tasa eta zerga, eskaera formalki egiten duenetik kontatzen hasita gehienez 10 eguneko epean.

Obra baimena emanda duela ulertuko da eskaera-orrian zehazten diren baldintzekin, eskatzaileak Udaleko tasa eta zerga ordaindu eta, gehienez ere bost laneguneko epean Udalak kontrakorik adierazten ez badu.

Baina udal-tasa eta -zerga ordainduko ez baditu, bere eskaera artxibatu egingo da, atzera egin duela ulertuta.

## **3.- Eskaera-orria.**

Eskatzaileak Udalak prestatutako eskaera-orrian aurkeztu beharko du aurretiazko komunikazioa behar duen obra egiteko baimen-eskaera.

Eskatzaileak eskaera-orrian zehaztutako datu guztiak azaldu beharko ditu bere eskaeran.

## **4.- Beste xedapen batzuk.**

- a.- Udaleko teknikariek sarrera librea izango dute obretara, hauek egiten ari diren bitartean.
- b.- Lizentzia hau eskatu eta lortuta ere, indarrean dagoen legeriaren arabera derrigorrezkoak diren bestelako baimenak ere eskuratu beharko dira.
- c.- Alkateak ahalmena izango du ordenantza hau egoki interpretatu eta aplikatzerakoan behar beste agindu edo jarraibide emateko.

Maila altuagoko arau, dekretu edo lege batek adierazten badu aldez aurretik jakinarazi obratzat hartu behar dela ordenantza honetan adierazi ez den beste obra motaren bat, 1. puntuaren (definizioa) aldez aurreko jakinarazpena behar duten obren barruan dagoela ulertuko da, udal-ordenantzaren aldaketa izapidetu beharrik gabe.